

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Emandako euskarrietatik energia motei buruzko informazioa jaso eta dituzten eraginak hainbat bitartekoz adierazi.	<p>1.1. Ondo identifikatu ditu energia motak euskarri desberdinetan emandako egoeretan.</p> <p>1.2. Zuzen deskribatu ditu egoera bateko azpi-prozesuetan gertatzen diren energiaren aldaketak.</p> <p>1.3. Zuzen arrazoitu ditu gertatzen diren energiaren aldaketak.</p>
2. Hainbat iturrietatik informazioa jasoz, energiaren ezaugarriak eta sortarazten dituen aldaketak identifikatzea eta adieraztea.	<p>2.1. Energiaren eraldaketa prozesuetan jasotako eta lortutako energia mota zuzen identifikatu ditu.</p> <p>2.2. Energiaren ibilbidean energiarekin zer gertatzen den aztertzeke, energiaren ezaugarriak ondo azaldu ditu.</p>
3. Energiaren erabilerari lotutako galderak erantzun eta erregistratu, emandako iturrietatik informazio egokia jasoz, eta lortutako ondorioak adostasunez adierazi.	<p>3.1. Energia iturriaren abantailak eta eragozpenak konparatu, adostu eta balioetsi ondoren, proposamen egokiak egin ditu.</p> <p>3.2. Infografiaren bidez ikerketaren ondorioak ondo jaso ditu euskarri digitalaren irizpideak kontuan hartuz (informazioaren ulergarritasuna eta egituraketa, irudien funtzioa, irakurtzeko erraztasuna, iturrien fidagarritasuna, helburu betetzea).</p>
4. Ikerketa-galderari lotutako ondorioetan oinarritutako eragozpenak eta abantailak konparatuz, kritikoki balioetsi, eta adostutako proposamenak bitarteko digitalaz jaso eta ahoz komunikatu.	<p>4.1. Energia iturriaren abantailak eta eragozpenak konparatu, adostu eta balioetsi ondoren, proposamen egokiak egin ditu.</p> <p>4.2. Infografiaren bidez ikerketaren ondorioak ondo jaso ditu euskarri digitalaren irizpideak kontuan hartuz (informazioaren ulergarritasuna eta egituraketa, irudien funtzioa, irakurtzeko erraztasuna, iturrien fidagarritasuna, helburu betetzea).</p> <p>4.3. Ikerketaren balorazioak eta ondorioak egoki justifikatu ditu ahozko aurkezpenaren bidez.</p>